


# BERRIGARA


8. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1997, uztailak 18



Canovas del Castillo gobernuko burua hil zuen

## Angiolillo

ela 100 urte exekutatu zuten Bergarako gartzelan



# DOPEL



## TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.

Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46

BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

Tfnoak: 79 05 86

PEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.



# LILURA

## Edertze Institutua

Bidekurutzeta, 7. Telefonoa: 76 31 71

Abuztuko ordutegia

Goizeko 9etatik arratsaldeko 6ak arte jarraian

Abuztuaren 15etik 25era itxita

**SOLARIUMeko ESKAINTZA BEREZIA**



Existentzie

likidazioa

denda

berrizteko

ederTU

EDERTU: Barrenkalea, 23 Bergara Tf. 76 29 65

## BERRIGARA

BERRIGARA JAUREGIA  
20570 Bergara  
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:  
BERRIGARA Elkartea.

Zuzendaria:  
Eneko Azkarate  
Erredakzioa:  
Eduardo Mendibil  
Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:  
Inaki Iturbe

Publizitatea:  
Kristina Romero

Harpidetzak:  
Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:  
Estepan Plazaola

Erredakzio kontseilua:  
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:  
Gorka Elortza

Erredakzio kontseilua:  
Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzio kontseilua:  
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:  
Gorka Ortega & Jon Alvarez

Erredakzio kontseilua:  
Alex Ugalde

Erredakzio kontseilua:  
Inaki Azkarate

Erredakzio kontseilua:  
Gorka Elortza

Erredakzio kontseilua:  
Gorka Ortega & Jon Alvarez

Erredakzio kontseilua:  
Alex Ugalde

Erredakzio kontseilua:  
Inaki Azkarate

Erredakzio kontseilua:  
Gorka Elortza

Erredakzio kontseilua:  
Gorka Ortega & Jon Alvarez



Aldizkari honek Bergarako  
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko  
Jaurlaritzaren Kultura  
sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

E S A N  
D U T E

## ASIER GARITANO

### Futbol jokalaria

- Datorren denboraldian Ferrol taldean jokatzeko fitxatu duzu...

- Bai, urtebeterako kontratua sinatu dut Ferrolekin eta astelehenean bertan abiatuko naiz Galizia aldera. Martitzenean hasiko gara entrenatzen (Perez Garcia izango da entrenatzailea) eta nirekin batera Real Unioneko bi jokalarri eta beharbada Eibarren jokatu duen Aginaga ere etorriko dira. Arteaga Realeko atezain ohiak ere Ferrolen jokatzeko du. Ferrol 2.B mailan ari da (aurten 6. postuan sailkatu da) eta helburua igogarako play-offetarako sailkatzea izango da, azken denboralditan play-offetan izan baitira. Uste dut nahiko eki-po ona izango dugula.



- Hemen jokatzeko eskeintzarik jaso duzu.

- Egia esan ez dut beste eskeintzarik aztertu maizterako jaso nuelako galegoen eskeintza. Bi denboralditarako eskeintza egin zidaten baina nahiago izan dut urtebeterako sinatu eta denboraldi amaieran ikusiko dugu zer egin. Gutxienez 30 urterarte jokatzeko asmoa daukat.

**"Bi denboralditarako eskeintza jaso arren,  
urtebeteko kontratua sinatu dut Ferrolekin"**

I T U R R I O N E T I K

### Herriko seinalizazio guztia aldatzeko proiektua martxan


Bergarako Udala herri barruko seinalizazio guztia aldatu eta berrizteko proiektua aztertzen ari da. Trafiko seinaleak aldatzeaz gain, herriko monumentu guztiak seinalizatu nahi dira, bisitariei gutxienezko informazioa eskeini ahal izateko. Guztira herriko 15 bat monumentu eta Udal Turismo Bulegoa sartuko dira proiektu honetan. Era berean, herriko sarreretan panel haundi batzuk jarriko dira Bergara herri monumentala dela adieraziz. Alfonso Alonso udaltzainburuak adierazi digunez, aurten enpresaren bati adjudikatu nahi zaio proiektua eta baliteke datorren urtean seinalizazio berria martxan jartzea.

"Nik laborantza konbentzionala praktikatzeko nuen eta badakit momentuan nola lan egiten den, ezagutzen ditut sortzen diren arazoak. Pertsonalki, beti kezkatu nau sektorearen etorkizunak eta nekazaritza biologikoaren sistema alternatiboan hastea erabaki nuen itsu-itsuan, honetan sinisten dudalako. Gipuzkoan 20 bat baserri dira nekazaritza biologikoa lantzen dutenak. Laborantza errotazioa da sistema ekologikoaren funtsezko oinarria. Ez dago sekreturik. Inportanteena labore-errotazio egoki bat egitea da, arazorik ez izateko eta beraz pestizidak eta horrelakoak erabiltzeko beharrez ez egoteko. Guk ongarri organikoak erabiltzen ditugu baina egia da satsak ez direla oso egokiak, askotan antibiotiko asko izaten dituzte eta"

**TOMAS LARRAÑAGA**  
Biolurreko  
presidente ordea  
EL DIARIO VASCO

**AIRBAG**

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelēhena: 19:30.  
Martitzena: 19:30  
(Ikuslearen eguna).

**Zinea**

▼▼ **Juanma Bajo Ulloa** zuzendariak (*La madre muerta*) orain arteko gai ilunak alde batera laga eta erritmo biziko komedia errodatu du. *Pako* (**Alberto San Juan**) eta *Konradin* (**Fernando Guillen Cuervo**) lagunekin batera bere soltero agurra celebratzen duen bitartean, *Juantxok* (**Karra Elejalde**) konpromezu eratzuna galduko du. Putetxer putetxe eratzuna topatzeari ekingo diote baina oztopo ugari izango dituzte bidean...

▼▼ **Aritzeta abesbatzak** kontzertua eskeiniko du gaur 8etan santa Marinan. Izaskun Labaienek zuzendutako taldeak *Finlandia* (J. Cibelius), *Jacinto Chiclana* (Liliana Cangiano), *Paikun* (Alfred Herzog), *Gaur akelarre Gorbeian* (Luis de Aranburu) eta *Cowboy Carol* (Cecil Broadhurst) izeneko piezak abestuko ditu.

**Deiak**

▼ **Odol ateraldia** uztailaren 30ean, 18:30etan Seminarioan.


▼ **Erakusketa.** Eluska Zabalo-ren margo erakusketa Nahikarin.

▼ **Bilera.** Banandu, dibortziatu eta alargunen bilera zapatu eta domekan 17:00etan Kafe tabernan.

▼ **Erromesaldia** Arantzazura uztailaren 25ean. Irteera 9:30etan autobus geltokitik. Izen-ematea San Antonioko Agirrebeñan, Barrenkaleko Zatoian edo Zubietako Aranzabalen.

▼ **Akanpada** uztailaren 25etik 27ra Zurizan. Argibideak Pol-Polen.


▼ **Orkestra Sinfonikoaren** udako kontzertua hilaren 24an gaueko 11etan Espoloian.

**Ogia**

▼ **Domeka 20:** Mizpildi.

▼▼ **Eguzki** eta **Eki** talde ekologistek urteroko bizikleta martxa Debara iragarri dute domeka honetarako. Deba ibai garbiagoa aldarrikatu nahirik, arazoarekin interesatutako guztiei ekintza sinboliko honetan parte hartzeko deia egiten zaie. Irteera goizeko 10:30etan egingo da San Martin Plazatik.

ARTXIBOA

**FARMAZIAK**

- ▼ **Eguakitza 18:** Guallar.
- ▼ **Zapatua 19:** Camacho.
- ▼ **Domeka 20:** Camacho.
- ▼ **Astelēhena 21:** Puy.
- ▼ **Martitzena 22:** Guallar.
- ▼ **Eguaztena 23:** Camacho.
- ▼ **Eguena 24:** Guallar.

**KORTA-ZAR****Txokolategia**

*Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea*

**OSTIRALETAN GOIZEKO  
9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

**BERGARA****Karrozeriak**

**Txapa - Pintura**

**Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31**

# Santamainak

## Kirol txapelketak, dantzaldiak eta kontzertuak Matxiategin

**Astebukaera** honetan Santamainak ospatuko dira Bergaran. Atzo martxan jarritako egitarauari jarraipena emanez, gaur ostirala, Santa Marina eguna, ekitaldi dexente izango dira. Ju1bilatuentzat antolatutako txapelketen ostean, sei t'erdia aldera, trikitilariak alaitutako poteoari hasiera emango zaio eta ondoren Gutxituen arteko VI. Boccia Txapelketa jokatu da. Arratsaldeko zazpi t'erdietan herri meza izango da Santa Marinaran, bertan Udal korporazioa bilduko delarik. Meza ostean, berriz, Arizeta abesbatzak emanaldia eskeiniko du eta jarraian Duo Plaentxik lagundutako herri afaria egingo da Matxiategin. Gaueko 11:30etan Luhartz taldea eta Duo Plaentxirekin dantzaldia izango da.

### Xake txapelketa

Bihar zapatua, eguerdiko 12etan kukainak izango dira, arratsaldeko 4etan txirrindulari lasterketa jokatu da eta ordu berean xake partida azkarren taldekako txapelketa Kayak tabernan (izen ematea bertan egin ahal izango da



Astean zehar entsaietan izan diren haurrek tanborrada egingo dute zapatu arratsaldean.

eta talde bakoitzeko hiru jokalaritako bat federatua izateko aukera dagoelarik). Ondoren, 6etan, water-polo partidua jokatu da Agorrosingo igerilekuan eta 7etan trikitilariak kalejira egingo da. Ondoren, 20:15etan hasita, haurren tanborrada (partaideei merienda emango zaie astelehenean 17:30etan Lasai-Toki elkartearen), gaueko 11etan suzko erroberak izango dira eta orduerdi beranduago Maskarada orkestra-

rekin dantzaldia hasiko da Matxiategin.

Azkenik, domekan, goizeko 9etan Udal Txistularien Bandarekin kalejira egingo da eta 10etan plater tiro lehiaketa jokatu da Gorlan, Iru-Bide elkartearen. Udal Musika Bandak kalejira egingo du 10:30etan eta 11etan water-polo txapelketaren finalak izango dira piztinetan. Goizeko 11:30etan herri meza izango da Santa Marinaran eta eguerdiko 12:30etan Musika Bandak kontzertua eskeiniko du

Fraiskozur. Bandak honako piezak eskeiniko ditu: Pepita Greus (P. Perez), Obertura festiva (Shostakovich), Ezpata dantza de Amaia (Guridi), Robin Hood (Kamen), Highland rhapsody (J.V. der Roost) eta The girls of Jobim (A. Jobim). Kontzertuaren ondoren salda eta txorizoa banatuko dira Simon Arrieta plazan, jarraian Xamatx dantza taldearen saioa izango da eta bukatzeko, arratsaldeko 5etan, sari banaketa egingo da Jubilatuetan.

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**AZPEITXI**

Aranerrea, 13 behea ☎ 76 55 00

*Jatetxea*

## Tavexeko konfliktoa

87 egun greban pasatu ondoren, soldata igoeran adostasun batera iritsita amaitu genuen.

Greba komenioagatik deitu zen, baina gogoan izan dira, era berean, Bergarako planten etorkizuna, inbertsioak eta langile berrien sarrera ere. Azkenean, soldata igoera lortu da; guztiontzat beharrezkoa zena, baina, gure ustez, ez kopuruz eta ez banaketa-moduz egokia ez dena. Biderik zuzenena izan ote da gatazkari amaiera eman eta gauzak geroago konponduko direla pentsatzea? Ez dago etorkizunerako aposturik ez eta enplegua sortzeko planik ere.

Ez ditugu inondik inora ere langileak egoera honen errudun bihurtu nahi. Besterik gabe, esan nahi dugu etorkizuna ziurtatzeko egin beharko litzatekeen bidearen guztiz kontrakoa egin dela, eta praktikan Bergarako Tavex itxi nahi dutenei laguntza eskaintzearen pareko izan dela. Zeintzuk izan dira gatazka honetako klabeak?

Hasteko, sindikatuen euren jarrera, dirua eta lan-jarduna arrazoi nagusi zituen greba bat deitu eta Etorkizuneko Plana negoziatzen sartu baitira gehiengo sindikalaren (ELAren) konbentzimendurik gabe, negoziazio batera bultzatuta ikusi baitu bere burua, horretarako prestaturik ez zegoenean. Bigarrenik, enpresako zuzendaritzarena, lau huts larri eta azertu bat (akzionistentzat) izan baititu. Hauek dira 4 hutsak:

1. Lehenengo 21 egunetan, urguilu hutsez, Mahai negoziatzailea ez deitzea. Indar-neurtze zorigaitzeko eta ulertezina.

2. Negoziazioa bideratu ondoren, dimisioa aurkeztea presionatuta sentitzen zirelako aitaziaz.

3. Negoziazioan zehar agertutako patxada, aditzera emanez greba ez zitzaieela askorik inporta, eta, are gehiago, ondo zetorkiela stock-ak murrizteko.

4. 65 egunetan Etorkizuneko Plana negoziatzen jardun ondoren, hori alboratu eta negoziatiozko gai bakarra ekonomikoa zela erabakitzea

eta erru guztia inori egozte, beren buruak ispiluren aurrean jarri beharrean.

"Azertua" gauza bat sekula ez zutela egingo esan eta huraxe egitea izan da, hain zuzen ere akzionistentzat jasanezinak omen diren kostuak dakartzan akordio bat ixtea. Honenbestez, beraz, Algodonera izango da inbertsiorik eza, langile berriak ez sartzea... gehien sufritu beharko dituen eta, ondorioz, lan-harremanetan eta baita langileenganako errespetuan kalterik handiena izango duena. Bada zerbaite euskal gizartearen kontuan ondo ez dabilena. Ezin da, bestela, ulertu halako ondorioak (inbertsioak hemendik kanpo egingo dira) izango dituen gatazka baten aurrean, erakundeek eskuak garbitzea eta, ez dakigu zer kode etikoren izenean (ziurren hauteskunde garaian ez gaudelako), industriaren etorkizunearagiko duten ahalmenari uko egitea, nahiz eta 150 urteko bizia duten lantegiak jokoan egon.

Dagoeneko hasiak gara ikusten CCOO-k sumatzen zuena, produkzioaren murrizketa. Edozein modutan, Bergararen alde aposturik ez egitea, erabaki enpresarial bat da, kasu honetan ez jarraitasunik eta ez koherentziarik izan ez duen erabaki enpresariala.

## CCOO. FITEQA

### ELA, ez engainatu jendea

Tavexeko hiru hilabeteko greba bukatu ondoren, LAB sindikatoak balorazioa egin zuen eta balorazio hori langileei eta herritarrei helarazi genien. Ez zaigu hau anomala iruditzen, harriztekoa halako gatazka luze batetik irten eta ixilik gelditzea litzateke, baina ELAko, nonbait, ez zaie gure prozedura hau batera gustatu, eta gezurrez betetako idatzi batekin erantzun digute joan zen asteko Berrigararen. Beraien idatzian azaltzen den egia bakarra hauxe da: sartuko ziren langile berrien soldatak gaur egungo langile-

enak baino murriztagoak izango zirela. Hori errelexe da eta kitto! Baina ez al da egia aurreko ibili diren ebentualak ere, beste langileak baino gutxiago kobratzen ibili direla, enpresako zuzendaritzak hori egiteko ELAren oniritzia zuelarik?

Bestalde, ELAK 65 lanpostu berri edo 1.300 milioiko inbertsioak egongo zirela zalantzan jartzea ez zaigu egoki iruditzen, hori akordioaren barne azalduko zelako; eta, beraz, edo sinisten dugu hitzarmen kolektiboaren edukietan edo bestela paso egiten dugu. Berriz, soldataren %40 tarifatik kanpo kili-kolo geldituko zela gezurra da; ELAK asanbladak egiten behin eta berriaz oztapatu du, beraz, asanbladak egiteari beldurik ez diola esatea gezurra da. Eta, azkenik, LAB enpresarekin zerbaite trapitxeatzen ibili dela inbentziaz zikinaren adierazgarri, denok dakigulako herrialako martingaletan eurok izan direla maisu.

Bukatzeo eta garrantzitsuena, ELAK esan zuen: "negozia ditzagun soldatak bakarrik eta gero geroakoak". Hemen non daukagun gakoa, ez inbertsiorik, ez ezer; eta Tavesa eta Algodonera lantegiak ia desautziatuta; oraingo Bergarako lantegien produkzio murrizketa sinatu den akordioaren ondorio bat besterik ez da.


## LAB EHUNGINTZA

### Nesken Futbito Txapelketa

Lagunak Elkarrekin eskerrak eman nahi dituzkie nesken futbito txapelketa aurrera ateratzeko laguntza eman duten hauei guztiei: Bergarako Udala, Miguel Altuna Institutua, La Caixa, Kubo Akort, Banco Vitoria, Banco Central, Caja Laboral, Etxeberria erloju-bitxitegi denda, Opel, Jardun, Berrigara eta Eroskiko Kontsumitzaileen Elkarte, bereziki Ana Orgaz.

## LAGUNAK ARETO FUTBOLEKO ELKARTEA

## Tiira biraka



# Miguel Angel Blancoren aldeko kontzentrazio jendetsua

## Berrigara barik irailera arte

Aste honetako ale hau, abuztuko oporren aurreko azkena da. Datorren astean eta abuztuan zehar ez da Berrigararik izango. Beraz, ondo pasa oporrak eta irailaren lehen eguakitzean berriz ere elkar ikusiko dugu.

## Gorlako kantina zabalik

Eguastenetik zabalik dago Gorlako kantina berria. Belatz kantinarenean inauruzazio ofiziala domeka goizean egingo da; besteak beste, bertsolariak eta trikitilariak izango dira. Belatz kantina berria urte guztian zehar zabalik izango da eta uda partean, eguraldi ona egiten duenean batez ere, ia egun guztian.

**Miguel Angel Blanco**, ETak domekan hil zuen Ermuko PPko zinegotziaren aldeko kontzentrazioan ia 1.000 herritar bildu ziren astelehenean eguerdiko 12:00etatik ordu bata bitartean San Martin Plazan. Kontzentrazioan Victoriano Gallastegi alkateak eta udaleko gobernu taldeko zinegotzi guztiek hartu zuten parte. Ordubete isilik egon ondoren, txaloen bidez eman zitzaion amaiera eguerdiko ordu batean kontzentrazioari. Era berean, Ajuria Eneako Mahaiak domekan egindako deialdiari jarraituz herriko hainbat denda, taberna eta lantegitan ordubete geldialdia egin zen.

Plazako kontzentrazioa hasi aurretik Udaletxeko Pleno aretoan bildu zen Udalbatza. Bertan ez ziren HBko zinegotziak izan. Alkateak adierazi zuenez, goizeko 09:30etan Jesus Mari Garitanok, HBko bozeramaleak, Plenora ez zirela agertuko esateko deitu zion telefonoz -azkenaldian lan orduetan egin diren Plenoe-tan HBko zinegotziak ez dira izan-. Udalbatzak Euskal Autonomi Elkarte-ko udaletxe guztietan eta lurralde historikoetako batzar nagusietan aurkez-



Herritar ugari bildu zen astelehenean plazan.

tutako mozioa onartu zuen. Alkateak leitu zituen mozioaren hiru puntuak. Miguel Angelen sendiari eta bere alderdiko kideei *"gure doluminik sentikorrena adieraztea; irmotasun osoz salatu izua eta ikara sortu duen erabilketa bel-durgarri hau"* eta Ajuria Eneako Mahaiak domekan ateratako agiriarekin bat egitea aho batez onartu zuen Udalbatzak.

Eguakitz eguerdian, bestalde, Udaletxe aurrean alkatea eta zinegotzi batzuk, epaitegiko langile batzuk eta herritar batzuk Udaletxe aurrean bildu ziren Ermuko PPko zinegotziaren bahiketaren kontra protestatzeko. Bestalde, Bergarako Uda-

lak Ermuakora telegrama bat bidali zuen bahiketa kondenatuz eta lazo urdina jarri zen Udaletxeko balkoian. Horrez gain, astelehenean eguastenera bitartean hiru egunetako dolu ofiziala egin zen, ikurriña masta erdira eta krespoi beltzarekin egon zen Udaletxeko balkoian eta gobernu taldeak astelehenero egiten duen batzarra bertan behera geratu zen.

Bestalde, MAYCeko enpresa komiteak Berrigarara bidalitako idazki baten bitartez, *"gure gizarteak bizi duen krisi politikoaren aurrean, elkarrizketaren bidez egor-rari irtenbidea topatzeko ahaleginak egin ditzatela"* eskatzen die aldeei.

## HILDAKOAK

- Valentin Pedrejon Balbas**  
Uztailak 13, 75 urte.
- Benito Iburguren Lizarralde**  
Uztailak 14, 73 urte.
- Antonio Fernandez Solana**  
Uztailak 16, 79 urte.

## JAIOTAKOAK

- Jon Abad Fernandez**  
Uztailak 7.
- Ibai Leizeaga Sanchez**  
Uztailak 8.
- Asier Lakuntza Lazpiur**  
Uztailak 8.
- Amaitz Arregi Berasategi**  
Uztailak 11.
- Mikel Miranda Fernandez**  
Uztailak 12.

A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA



DEBA

**GARAIA**

**INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
**T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37**

## Gobernu Batzordearen salaketa

Udal Gobernu Batzordeak San Martzialgo elizan eta kantinan eta hauen inguruan egindako kalteak (pintadak, fokoen lapurreta, elizako zerraila hondatzea, e.a.) publikoki salatzea erabaki du.

## Askatasunaren ibilaldia Bergaran

Abialdian askatasunaren ibilaldiko Amaiur zutabea Bergarara heldu zen martitzenean. Arrasatetik 100 bat lagun etorri ziren Bergarara eta bertan beste 100 bat bildu zitzaizkien. Herriko kaleak zeharkatu ondoren, Antzuolarantz abiatu ziren arrasaldeko ordu batean. Martxistek Urretxun bazkaldu eta Beasainen lo egin zuten. Askatasunaren ibilaldiak ekainaren 29an ekin zion bidari Iruñean eta uztailearen 26an Gernikara helduko da. Orain dela 20 urte egin bezala, Euskal Herri osoa zeharkatuko du askatasun eske.

## Lekeitiora irteera

San Joxepe jubilatuen elkarteak Lekeitiora irteera antolatu du datorren eguastenerako. Irteera goizeko 9etan egingo da eta Laga, Laida eta Elantxobe bisitatu ondoren, Lekeitio bazkaria izango da. Prezioa 2.600 pezetakoa izango da. Interesa dutenek izena eman dezakete lehenbailehen jubilatuetan. Bestalde, Alcoceberren hilabate bat edo bi pasatzeko edota termalismo programaren barruan, bainuetxe batean hamabost egun igarotzeko aukera ere eskaintzen zaie jubilatuei. Honi buruzko informazio gehiago jubilatuen egoitzan lor daiteke.



Diputazio eta Udaleko agintariak Mizpirualden izan ziren joan zen egunean.

## Mizpirualde egoitzan suteen kontrako sistema berria jarriko da

*Gizartekintzako diputatuak egoitza bisitatu du*

Luis Mari Bandres Gizartekintzako diputatuak, Mizpirualde zaharren egoitza eta Jubilatuetan egiten ari diren eguneko zentruko obrak bisitatu zituen joan zen egunean. Diputatu Victoriano Gallastegi alkatearen eta Alvaro Esparza Gizarte Ongizateko zinegotziaren laguntzarekin egon zen Bergaran. Aurretik, Elgetako jubilatuen etxea bisitatu zuen eta Bergaratik Antzuolara abiatu zen bertako jubilatuen egoitza bisitatzera.

Diputatuak Mizpirualden hainbat berrikuntza lan egingo direla aurreratu zuen. Hain zuzen ere, suten kontrako sistema berri bat jartzeko 17 milioi pezetatik gora inbertituko dira. Obra hauei Udalak eta Diputazioak egingo diete aurre. Besteak beste, gelaren batean edo

beste tokiren batean sutea gertatzen denean bertako atek automatikoki ixteko sistema berria jarriko da. Lanak irailean hasiko dira eta lau hilabeteko epean amaituko dira.

Bestalde, Jubilatuetan eguneko zentrua jartzeko egiten ari diren obrak laister amaituko badira ere urrira arte ez da zabalduko. Oriben 7 milioi inguruko aurrekontua dute eta Diputazioak ordainduko ditu. Horrez gain, beste hiru milioi pezetan bideratuko dira eguneko zentrua ekipatzeko eta hau Diputazioak eta Udalak erdibana ordainduko dute. Eguneko zentruko zaintzaile zerbitzua adjudikatze baldintza pleguak Udaltzatzen onartu berri ditu eta eskariak egiteko epea zabalik dago. Bertan hiruzpalau lagunek jardungo dute gaisoak egunez zaintzen.



# PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK

- APAINKETARAKO PINTURAK
- ERROTULOAK

Aranerreaka, 32 behea BERGARA. Telefonoa: 76 10 65, faxa: 76 11 40



## Udal Pilotakuan errebotea kentzeko lanak hasi dira

*Frontiseko eta ezkerreko paretak ere berriztuko dira*

Astelehenean hasi ziren Udal Pilotalekuan errebotea kentzeko eta paretak berrizteko lanak. Berrikuntza lan hauek San Martinetarako amaituko ditu Etxabide enpresak. Asegarcek irailaren 16an San Martinetako pilota jaialdia antolatzeke asmoa dauka eta bezperarako lanak amaituta egon beharoko dira. Lanen aurrekontua 10 milioi pezeta ingurukoa da eta Udalak ordainduko ditu.

Gogoratuko duzuen bezala, frontoian orain dela bi urte egin ziren azken berrikuntza lanak. Joku eta ikuskizunetarako indarrean dagoen araudia betetzeko ezinbestekoak ziren obrak. Suteen kontrako neurriak hartu ziren, larraldietarako irteerak egokitu, lbargarai aldera beste irteera bat eginez; taberna tokiz aldatu zen, argindarra, ura eta berogailuaren

instalazio berriak egin ziren; gal-dara gela berria eta aldagela berriak egin ziren... Guztira 50 milioi pezeta inguru gastatu ziren berrikuntza lanetan. Kantxari dagokionez, errebotea egin zen eta honen gainean eserlekuak jarri; frontoiko paretak zuriak, bestalde, berdez pintatu zituzten.

Azkenaldian, ordea, kantxa motzegi geratu dela aipatu izan dute pilota adituek eta Asegarce-ren aholkuei jarraituz, orain dela bi urte egin zen errebotea kendu eta kantxa luzatzea erabaki du Udalak. Honenbestez, errebotea atzeratu egingo da, orain dauden eserlekuak desagertu egingo dira eta kantxak 11 kuadro eta erdi izango ditu. Bestalde, frontoiko bi paretak pikatu, ondo zarpeatu eta berriz ere berdez pintatuko dituzte.



Errebotea kentzeaz gain, frontiseko eta ezkerreko paretak zarpeatu eta berriz ere pintatuko dira.



### San Martinetako danborrada prestatzen

Aurtengo San Martinetako haurren danborradan nobedadeak izango dira. San Martinen martirioaren 400. urteurrena betetzen denez, danborrada berezia izango da. Hain zuzen ere, irailaren 16ko haurren danborradan azken urteetan egin den danborradaz gain, japoniar danborrada ere antzetzuko da. Otsailean San Martinen estapan antzestu zen danborrada japoniarraren pasarte batzuk hartu eta herriko kaleetan antzetzuko dituzte: soldaduak, danborjole japoniarrak, enperadorearen eta geishen karrozak eta martirioko fraileen desfilea izango dira, besteak beste. Estapan erabili ziren jantziak erabiliko dira eta bertan parte hartu zutenak arituko dira. Halere, herritarren partehartzea eskatu da, kalera japoniar jantzita irtetzeko; Bergarak orduko Nagasakiren itxura hartzea da asmoa. Umeen danborradan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete astelehenetik aurrera arrastaldez Kultur Etxean (77 91 60). Entsaioak irailaren 1ean hasiko dira eta Seminarioko patioan egingo dira.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55

# Gerrako kontuak

## Gerra zibilak Bergaran izan zuen eragina aztertzen

**Mola eta Franco generalak indarrean zegoen Errepublikaren kontra matxinatu eta "Altamendu Nazionala" gertatu zela 61 urte betetzen dira gaur, uztailak 18. Santa Marina eguna, jai egun handia zen Bergaran. Altamenduren ondoren, gerra zibila etorri zen.**

Gaur egun ia ahaztuta daukagu gerra, baina asko dira sasoi beltz eta gogor hura bizi izan zutenak. Batzuk zuzen-zuzenean, trintxeretan egon zirelako; lehenengo lerroan egon ez zirenek ere gerraren miseriak jasan zituzten.

Gerra zibila Bergaran nola bizi izan zen kontatzeko eta orduan gertatutakoak ahaztu ez daitezten, lanean dihardu herriko gazte talde batek: "gure historiaren zati garrantzitsu bat da gerra zibila eta orain dela 60 urte gertatu arren, ez dugu ahaztu nahi. Gerrak mundu guztiari afektatu zion; gizarte zibilak asko sufritu zuen, gerra ostean batez ere, errepresioa oso gogorra izan zelako eta gizartea asko aldatu



Gerran Intxortako borrokaldian ibilitakoak Kanpazarren: Iñazio Bilbao, Jose Juaristi, Antonio, Alzelai, Pedrotxo Garcia, Andres Agirre eta Natalio Juaristi.

zen. Bestalde, bando batetakoek zein bestetakoek, historia euren erara kontatu dute" esan digu Josuren Murgizuk talde horretako kide batek.

Gerra zibilak Bergaran izan zuen eragina eta orduko gizartea nolakoa zen jakiteko, hainbat artxibo eta liburutegitan izan dira. Gerrako protagonista zuzenak izan zirenekin ere egon dira eta hainbat elkarrizketa egin

dituzte. "Gerrako hainbat istorio dago, hainbat protagonista dagoen moduan, horregatik ikuspuntu objetibo batetik, baloraziorik egin barik, Bergarako herriari gerrako gertaerak ezagutzera eman nahi dizkiogu. Gauri hartan Bergara kontserbadore samarra zen eta karlismoak indar handia zeukan. Ezkerreko alderdiek ez zuten hainbeste jarraitzaile.

Dena dela, gerrak gizartea asko aldatu zuen".

Taldeari izena ere jarri diote: "Ondo hurbildu gerra aurreko Bergarako herriko kuadrila ospetsu baten izena. "Ideologia ezberdineko kidez osatutako lagun kuadrila zen eta bakoitzak pentsaerak ezberdinekoak izan arren, barreman onak zituzten". Kuadrila hartako anaiarteko filosofiari eutsi nahi izan diote.

**IZADI** PILI GISASOLA

Zurradero, 2  
behea.  
☎ 76 58 83

**Santiveri**

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua



**KALEGOI, 19** ☎ 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

**ANTZUOLA BERGARA**

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Mokatetako eta tapizatuak

**Erakusketa, liburua...**

Irargin, Kutxa fundazioan, Guardia Zibilaren Salamancako artxibo historikoan edota Udaleko eta Zerrajerako artxiboetan informazioa jasotzen aritu dira; baita hainbat museo eta lirutegitan ere: Biblioteca Nazionalan, Ejerzitoaren museoan, Gipuzkoako merkatal garban... Bestalde, herriko hainbat etxetan ere argazki eta idatzi ugari jaso dituzte.

Bildutako materialarekin erakusketa bat antolatuko dute, baina oraindik ez dakite noiz egingo duten. Bertan, argazkiak, idazkiak, gerrako materiala eta lekukoei egindako elkarrizketak jasotzen dituen bideoa erakutsiko

dira besteak beste. Bestalde, liburua argitaratzeko asmoa ere badute: *“Arrasaten Zutik-ekoek era bonetako liburua atera zuten eta ildo horri eutsi nahi diogu”*.

**Zuzeneko testigantza**

Gerrako borrokaldietako protagonistak izan zirenen zuzeneko testigantzei garrantzia handia eman diote: *“oso inportantea da euren hitzak jasotzea eta bideoan edo kasetean grabatzea. Zabarrak dira eta euren hitzak orain jasotzen ez baditugu, altxor hori bertirako galduko dugu”* esan digu Jesus Mari kalboetxeagak, “Ondo hurbildu” taldeko beste kide batek.



1936.ean, gerra zibila hastear zegoela, San Juanen ateratako argazkia. Bertan agertzen direnak “Mendizaleak” taldekoak ziren, geroago Eusko Alderdi Jeltzalearen Gudarostea osatu zutenak. Batzuen izenak bakarrik lortu ditugu: Luis Ibarra, Juan Mendiola, Dionisio Bolibar, Periko Marko, Isidro Azkarate eta Bengoa. Argazkia Txomin Amasorrainena da.

Intxortako burrukaldian UHP eta Loiola batailoietan ibili zirenekin Asentzio, Intxorta eta Azkonabieta inguruetara ir-

teera antolatu zuten apirilean. Inazio Bilbao, Jose Juaristi, Antonio Alzelai, Pedrotxo Garcia eta Andres Agirre UHP batailoi anarkistako kideak izan zirenak, eta Natalio Juaristi Loiola batailoi nazionalistakoa izandakoarekin bildu ziren. Aipatutako hauek elkarrizketatu dituzte, baina Intxortako burrukaldian protagonista izan ziren beste batzuekin ere egon nahi dute. *“Ez dugu inor mindu nahi, badakigu UHP batailoian, esate baerako, 200 bergarar inguru zeudela eta bizirik dauden guztiekin harremanetan jartzeko aukerarik ez dugu izan”*.

“Ondo hurbildu” taldekoek harremanetarako telefonorik ez digute laga, baina eduki bezain laister Berrigarar jarriko dugu.





Gerrako protagonistei egindako omenaldia, Asentzian.

**iRUDI**  
**Erlojudenda**  
**Bitxitegia**  
 Ibargarai, 2  
 ☎ 76 51 65

**ileapaindegia**  
 eder gela  
**disdira**  
 Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

**ONENA**  
**TINTATEGIA**  
 Barrenkale, 29 BERGARA



Ezkerrean  
Canovas del  
Castillo 1897an  
Estatuko  
gobernuburua  
zena. Behean  
Michele Angiolillo  
Bergarako  
Kartzelan  
sententziaren zain.

# Michele Angiolillo

## Canovas hil zuen anarkista

**Orain dela 100 urte Bergara gertakizun historiko baten lekuko izan zen. Michele Angiolillok Canovas del Castillo (Maria Cristina erreginaren gobernuburua) hil zuen abuztuaren 8an Santa Ageda balnearioan. Bergaran Angiolilloren kontrako epaiketa militarra izan ondoren, 1897ko abuztuaren 20an, goizeko 11etan, Kartzelako patioan garrotez exekutatu zuten anarkista italiarra.**

Canovas del Castillo Santa Agedako bainu-etxean egonaldiak igarotzeko ohitura zeukan eta 1897ko abuztuaren Joaquina de Osma bere bigarren emaztearekin etorri zen Arrasatera. Julia Orbe bainuetxeke jabeari aitortzen zionez, Santa Agedan lau egun besterik igarotzearekin berrindartuta bueltatzen zen Canovas Madrilerara. Bere azken bisitaldia izango zen hartan bi logela alokatu zituen

Canovasek, horietako bat lanerako bulego modura erabiltzen zuelarik. Bigarren mailako bidaiariak hartzen zituen edifizio zaharreko 110. gelan, berriz, Rinaldi ezizena zuela, Angiolillo ustezko kazetari italiarra zegoen. Abuztuaren 8a domeka zen eta, meza entzun ondoren, Canovas lorategiko arkupetara jeitsi zen. Egunkaria irakurtzen ari zela, Angiolillo hurbildu zitzaion eta Canovas hiru tiroz hil zuen. Badirudi

urte bereko maiatzaren 4an Bartzelonan, Montjuich-en afusilatutako anarkistak (euren atentatu batean zortzi lagun hilketarekin) leporatzen zitzaientzako mendekatu nahi izan zituztela Angiolillok Canovasen hilketarekin.

### Sukaldariak

Soraluzeko Jovita Bertiak, Maria Pilar Garaikoa etxearen amandreak Santa Agedan sukaldari lanarekin egiten zituen. Jovita

1973an hil zen 93 urte zituela eta hil baino lehen egin zitzaion elkarrizketa batean honela gogoratzen zuen egun hura; "Angiolillok Canovas bakarrik zegoela ikusi zuenean, bere gelara pistola bila joan eta Canovas tirokatu zuen. Jendea '¡Han matado al presidente!' oibukatzen hasi zen eta ni hara heldu nintzeneko Canovas odoletan zegoen. Bertan zegoen markes batek zaintzen zuen Canovas, baina burua odoletan zeukan". Emakumeak beranduago iritsi ziren bazkarirako gertatzen ari zirelako. Jovitak Fernando Alberdi bere bilobari adierazi zionez, "Angiolillok zera esan zion Canovasen

## "Sebastian osaba Santa Agedan ari zen lanean eta Canovas tirokatu ondoren antxintxiketan zihoan Angiolillori heldu zion" PILAR ERDABIDE

emazteari: 'Zu emakume zintzoa zara eta nik zure gizonari bakarrik egin nahi izan diot min, bori-xe baitzen nire patua. Horregatik kontuz ibili naiz bera bakarrik zegoenean hiltzeko'".

Sebastian Aizpeurrutia Pilar Erdabide bergararren osaba batek harrapatu zuen Angiolillo honek Canovas del Castillo tirokatu bezain laister. Pilarren hitzetan, "agintariek Madrileko Lardy jatetxe ospetsuko sukaldariak ekartzen zituzten Santa

Agedara eta Sebastian gure osaba ere bertan lanean egondakoa zen. Ordurako Bergaran zegoen lanean baina, ezagutzen zutenez, osaba Santa Agedara lanera joateko deitu zuten. Bertan zegoela, Canovasen kontrako atentatuaren egunean, tiro hotsak entzun zituen eta sukaldetik irten zenean gizon bat antxintxiketan ikusi eta heldu egin zion zer gertatu zen jakin barik. Angiolillok ez zuen kontra egin eta ondoren guardiek atxilo-

tu egin zuten". Pilarrek osabari entzundako istorioaren arabera, "Canovasen andreak ikusi zuenean bere gizona hilda zegoela, zerbait egin nahi izan zion Angiolillori eta eskuan zuen abanikoarekin jo eta jo egin zuen".

Sebastian sukaldaria txikitak aita barik geratu zen eta bere ama Marcial Etxanizekin ezkondu zen bigarren aldiz. Sebastianen aitaordekoa epaitegiko prokuradorea zen garai hartan eta harreman



Karmen Azkargortak eta Nikolas Larrañagak gogoan dituzte euren aitei Angiolillori buruz entzundakoak.

### BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxa: 76 04 77


Era guzietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu,



zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko

kamisietan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behea. ☎ 76 50 39



Irizar, 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

handia izan zuen anarkista italiarrarekin Bergarako kartzelan egon zen bitartean. Pilarrek azaltzen digunez, "gure aitaitak ia egunero bisitatu zuen Angiolillo kartzelan eta berak esaten zuenez, oso atsegina zen berarekin berbetan egitea. Idealista butsa ei zen Angiolillo. Anarkistek agindua emango zioten Canovas biltzeko eta harek agindua bete...".

**Gerra kontseilua**

1897ko abuztuaren 15ean Angiolilloren kontrako gerra kontseilua osatu zen Bergaran. Fiskalak autoritate baten kontra jakinaren gainean eta maltzurkeriaz egindako hilketatzat jo zuen delitua. Defentsak, berriz,

Sebastian Aizpeurrutia sukaldaria.



FOEDA Y CARRUAJES  
de  
**Antero Milikua**  
Mondragón.

*esto 12*

*Quenta que presenta Antero Milikua al Jefe Subintendente de la Villa de Vergara, Agosto dia 9. Por un libro de Comedista tipografico a Vergara Ptes 40. correspondiente al magasin de Angiolillo y los guardias Mondragón 9 de Septiembre 1897*

*Antero Milikua*

*Recibi  
D. A.  
J. A. Amador*

Abuztuaren 9an, Antero Milikua Arrasateko txoferrak Angiolillo eta honen guardiak Bergarara ekarri zituen. Udalarai aurkeztutako fakturan zehazten denez, 40 pezeta kostatu zen trasladua. Eskuman Angiolilloren heriotza akta.

akusatua burutik ondo ez zegoela, behar bezala garatutako intelijentzia ez zuela alegatu zuen, tribunalarri Angiolillorekiko borondate ona izateko eskatuz. Angiolillok, defentsari eskerrak emanez, anarkismoari buruzko azalpenak ematen ahalegindu zen baina tribunaleko presidentek berehala moztu zuen. Fiskalaren eskaerari jarraituz, heriotza zigorraren sententzia hiru egun beranduago berretsi zen Madrilen eta Canovasen hilketak anarkisten kontrako errepresioaren areago-

ztea ekarri zuen atzetik. Abuztuaren 20an, goizeko 11etan, Angiolillo garrotez exekutatu zuten Kartzelako patioan. Heriotza aktan jasotzen denez, Angiolillo (Napoleseko Foggia herrikoa) 26 urteko ezkongabea zen orduan eta bere lanbidea aipatzean, "tenedor de libros" zela esaten da.

Pilar Erdabideren amak Angiolilloren exekuzioa ikusteko aukera izan zuen; "amak esaten zidanez, ia herriko ume guztiak eroan zituzten exekuzioa ikustera, eskarmentu modura. Pen-

**ACTA DE DEFUNCIÓN.**  
N.º 0137438 87

En la villa de Vergara a los once dias de Septiembre del año de mil ochocientos noventa y siete. Yo, el Sr. Jefe Municipal y D. Juan de Dios...

Número 18

Miguel An...  
Gabriel y Am...  
Barbi...

Secretario, compareció el Sr. Juan de Dios... natural de Vergara...  
Miguel An... natural de Vergara...  
Gabriel y Am... natural de Vergara...  
Barbi... natural de Vergara...

En vista de esta manifestación y de la certificación facultativa presentada, el Sr. Jefe Municipal dispone que se extienda la presente acta de inscripción, cumplida en día anterior de lo dispuesto por el doctorado y en virtud de lo anterior que se han podido adquirir las circunstancias siguientes:

Que el referido finó a los once dias de Septiembre del año de mil ochocientos noventa y siete en la villa de Vergara, a consecuencia de la cual debió para su debida formalidad en cumplimiento de su deber.

En vista de esta manifestación y de la certificación facultativa presentada, el Sr. Jefe Municipal dispone que se extienda la presente acta de inscripción, cumplida en día anterior de lo dispuesto por el doctorado y en virtud de lo anterior que se han podido adquirir las circunstancias siguientes:

Que el referido finó a los once dias de Septiembre del año de mil ochocientos noventa y siete en la villa de Vergara, a consecuencia de la cual debió para su debida formalidad en cumplimiento de su deber.

Se dio fe y se firmó en la villa de Vergara a los once dias de Septiembre del año de mil ochocientos noventa y siete.

tsaizu, 10 urterekin buratik... Nire ama askotan akordatzen zen egun horrekin".


Patxi "Lugarri" Karmen Azkargortaren aitak ere ikusi zuen exekuzioa. Karmenek esaten digunez, "orain gutxirarte Itxasmendi taberna egor den lekuan zegoen nire aitaren baserria baina terrenuak Altos Hornoseko tejeria inguruan zeuzkan. Bere aitarekin joaten zen bertara itulan egitera eta behin handi etxera bueltan zetorrela Bentako zubira ailegatzten, kotxe landua (zal-

**"Nire aitak 8 urte zeuzkan orduan eta goiko kondeko arboletara igo zen bere lagunekin exekuzioa ikusteko" KARMEN AZKARGORTA**



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tf. 76 71 19

**ANTIA**  
HARATEGIA URDAITEGIA  
Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.  
Matxiategi ☎ 76 15 09



pinturak eta paperak  
Irala kalea, z/g • 20570 BERGARA  
Tf. eta faxa 76 33 01

**“Angiolilloren gorpua gauera arte egon zen Kartzelan ikusgai eta barrenderoek eraman zuten kanposantura” NIKOLAS LARRAÑAGA**

di-kotxea) zetorren eta, orduan mutikoek egin obi zuten moduan, kotxe atzealdeko eskilaran jarrri eta goiko plazaraino ekarri zuten. Kotxe landua geratu zenean berak ere salto egin zuen eta ikusi egin behar zein zetorren borrelako kotxe elegantean... Orduan Angiolillo lotuta ekartzin zutela ikusi zuen. Gizakume korrientea ei zen eta harek bazekien hura eginez gero zer zeukan. Atentatuaren ostean ‘Mi mision esta cumplida’ esan ei zuen. Nire aitak 8 urte zeuzkan orduan (Angiolilloren exekuzioaren ondorengo egunean betetzen zituen) eta goiko kondeko arboletara igo zen bere lagun batzuekin exekuzioa ikusteko. Inpresio haundia hartuko zuten, baina badakizu, umetasunean inportantzia haundirik eman ez... Nire aitak askotan errepikatzen zuen kontu hau, zenbat bider esaten zuen; ‘Bizitza tokau jaten ba!’”.

**Borreroa lotuta**

Nikolas Larrañaga 1902 urtean jaio zen eta oraindik ere gogoan ditu Manuel bere aitari en-

tzundakoak; “kanpora begira oibartzun haundia izan zuen Canovasen bilketak eta ondorengo Angiolilloren exekuzioak. Jende asko etorri zen inguruko herrietatik exekuzioa ikustera. Nire aitak ere ikusi zuen exekuzioa, zeinek ez? Jendea gainera denboraz janda tokia hartzera... Trajikoa izan zen baina Angiolillo ez zen damutu, berarentzat egin zuena heroizidade bat izan zen. Santa Agedako balnearioan hil zuen Canovas eta balnearioa handik gutxira kendu zuten, jendea gehiago etorriko ez zelakoan edo...”. Ni-


kolasen arabera, “Jose Telleriarte zenari entzun nionez, Angiolilloren gorpua ikusgai egon zen gauera arte Kartzelako patioan. Hura eskolatik irten eta gorpua ikustera joan zen. Inork ez zuen bere gorpua erreklamatu eta herriko barrenderoek eraman zuten Angiolillo kanposantura. Kanposantuak albo batean duen ate faltsu batetik sartu ei zuten gorpua, guztiz mesprezaturia izan zen Angiolillo bere azken orduetan. Hemen ez zegoen anarkistarik sasoi hartan. Mezetara joaten ez zirenak gaizki ikusita zeuden orduan”. Angioli-

lloren borreroa trenez heldu zen Burgosetik goiko estaziora eta Nikolasek esaten digunez, “bura ere lotuta eraman zuten Kartzelara”. Bergarako alkateak herriko kaleetan ibiltzeko debekua luzatu omen zion Angiolillo exekutatu zuen borre- roari.

**Germinal**

Pedro Iturrinok kontatu digun anekdotaren arabera, “borreroak azken borondatea eskatu zion Angiolillori. Honek zigarror bat eskatu zuen eta lehen zupada eman ondoren, gelditzen zena bidean erreko zuela esan zion borreroari. Nire aitona exekuzioan izan zen eta apaiz edo fraile bat ere hurbildu zitzaion Angiolillori ea konfesatu nahi zuen galdetzera. Angiolillok zera erantzun zion: zuri zer esango dizut ba? Hor goian dagoenari esango dizkiot neure kontu guzti hauek”.

Orduko kroniken arabera, Michele Angiolillok, hil baino lehen, “Germinal” hitza esan zuen ozenki Bergarako Kartzelako patioan, ustez berak defendatzen zuen anarkismoaren ideiak erne- tzen hasteko esperantzaz. 100 urte igaro dira ordu- tik. Nicolas Larrañagak esaten duen moduan, “urte asko dira. Joan egin dira aguro...”.



1897ko abuztuaren 20an exekutatu zuten Angiolillo Kartzelako patioan.

Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

**ZABALETA ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak Fatxadak, eskaparateak...


**ARREGI**

**Eraikuntza materialeak**

Billegia Tellerian, Labegaraian. Tfnoa: 76 27 93

**Eguakitza 18**

**19:00:** Herriko Plazan Elkartasun festa herriko Elkartasuna taldeak antolatuta: ardoa, sagardoa, txakolina eta txorizo dastaketa. Batzen den dirua Brasilen dagoen Iturriozko Juan Antoniori bidaliko zaio, hango proiektu bat bultzatzeko.



**12:00:** Umeendako zirko tailerra Goloka taldearen eskutik: monozikloan, zankoetan eta hari batean ibiltzea, pilotak egitea, ohe elastikoak eta puzgarriak.

**12:30:** Sasoi bateko mairuaren alardea: No-Doko irudien (1943) eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Munizipalak 1979an filmatutako irudien etengabeko erakustaldia Udaletxeko areto nagusian.

**13:00:** Bergarako Udal Musika Bandaren

kontzertua Zurrategi Plazan.

**18:00:** Mairuaren alardea. Aurtengo alardea Euskal Telebistak gaueko 11ak aldean telebistaz emango du; errepikapena ere izango du.

Alardea bukatu ostean, sasoi bateko mairuaren alardea: No-Doko irudien (1943) eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Munizipalak 1979an filmatutako irudien etengabeko erakustaldia Udaletxeko areto nagusian.

**19:00:** Oinarin taldearen dantza saioa: Antzuolako dantzak, "trokeo dantzak", zinta dantza, makila txiki dantza, uztai eta makila haundi dantza.

**20:00:** Kalejira herriko trikitilariak alaituta.

**22:30:** Pilota txapelketako finalak, Olalde pilota elkarteak antolatuta herriko frontoian.

**22:30:** Aurten nabarmendu diren herriko kirolariei omenaldia herriko pilotalkuan.

Aurten Antonio Merino, Izaskun Fernandez, Goretti Fernandez, Egoitz Jauregi eta Luis Franco atletak; futbol talde



nagusia eta Aitor Elkoro eta Aritz Berraondo pilotariak omenduko dira. **23:00:** Dantzaldia Basajaun taldearekin Herriko Plazan.

**Domeka 20**

**10:00:** Langraitzera martxa, Amnistiaren aldeko komiteak antolatuta.

**10:30:** Umeendako mahai jokoak: futbolina, partxisa, damak...

**10:55:** Txafleroak.

**12:00:** Herriko artisten erakusketa: eskulanak, kotxe eta motor miniaturak, itxasontziak botiletan...

**12:30:** Kalejira, Incansables taldeak alaituta.

**13:00:** Buruhaundiak.

**14:30:** Herri bazkaria, elizpean, Amnistiaren aldeko komiteak antolatuta.

**15:00:** Umeendako futbolarri puzgarria Herriko Plazan.

**17:00:** helduendako futbolarri puzgarri txapelketa Herriko Plazan.

**19:00:** Bielorrusiako dantzarien saioa herriko frontoian.

**20:00:** Incansables taldearekin kalejira.

**22:00:** Dantzaldia Izadi taldearen eskutik.

**23:30:** Suzko erroberak. Pirotecnia Zaragozanaren bilduma. Eskolako patiotik botako dira. Argiak emendatu egingo dira ekitaldia izango den inguruetan, ikuskizuna ederragoa izan dadin.

**02:30:** Incansables txarangarekin jaien amaiera.



**20:00:** Zilipurdi kale antzerki taldearen eskutik "Salam" ikuskizuna, Herriko Plazan.

**23:00:** Paco Feroso mariatxi taldea Herriko Plazan. Ondoren, Orquesta Pasarella.


**23:00:** Rock kontzertua Txoznetan: Vantroi mexikarrak eta Skalariak.

**Zapatua 19**


**10:00:** Txistulari taldearekin Goizeresia.

**10:55:** Txafleroak.

**11:00:** Bergarako Udal Musika Bandarekin kalejira.



*Antzuolako udalak jai zoriontsuak opa dizkizue.*



**ANTZUOLAKO UDALA**

Antzuolako udaletxea: Herriko plaza, 8 Telefonoa: 76 62 46, Faxa: 78 71 00



# NO-DOko irudiak eta telebista aurtengo Mairuaren Alardean

**Duda barik Antzuolako jaietako ekitaldirik ospetsuena Mairuaren Alardea da. Aurten polemika piztu da domekan antolatzeko ahaleginak egin direlako. Azkenean, urtero moduan, zapatuan egingo da arratsaldeko 6etan.**

## ANTZINAKO ETA GAUR EGUNGO IRUDIAK

Mairuaren Alardeak izango du nobedaderik aurtun. Alde batetik, alardea bukatu ostean, 1943an eta 1979an filmatutako irudiak ikusi ahal izango dira Udaletxean. 1943. urteko irudiak NO-DOan filmatu ziren lehenengoetakoak dira eta 79koak Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Munizipalak 1979an hartutakoak. Zinean filmatutako irudiekin ia bost minutuko iraupena duen bideoa osatu da. Bestalde, aurtengo Mairuaren

Alardea grabatu egingo du ETBk eta gaueko 11etan emango du.

## 100 BAT HERRITAR

Mairuaren Alardean herriko 100 bat lagunek hartzen dute parte: 15 txistularik, 20 danborrerok, 28 eskopeterok, 8 kainonero, 10 eskoltak, Iparragirreraren bertsoak kantatzen dituen abesbatzako 15 abeslarik, kapitainak eta moroak. Azken hauek dira alardeko protagonistak; kapitainaren papera aurtun ere Jose Luis Kortabariak egingo du; moroarena, ostera, Salvador Peñak.

## 1881EAN LEHEN ALDIZ

Liburuetan jasotzen denez, 1881. urtean antzestu zen lehen aldiz Mairuaren Alardea moro eta guzti. Alardearen antzezpeneren oinarria foruak galdu aurretik

Euskal Herriak zuen antolamendu militarrean datza. Garai batean, euskal ejerzitoaren oinarrian udal miliziak

zeintzuk ziren jakiteko eta trebatzeko, urtero, alardea egin behar zen herriko plazan. Baina, Euskal Herriak foru

Nafarroako Salinas de Oro eta Muez herrien artean kokatuko litzatekeen Baldejunkera haraneko borrokaldia, Abd al-Rahman III.aren kontrakoa, gogoratzen da. Antza denez, borrokaldi hau 920ko uztailaren 26an jazo zen, eta, herri-ohiturak



zeuden eta foru aginduari jarraituz, 18tik 60 urtera bitarteko gizonezko guztiak armen zerbitzua bete behar zuten. Beraz, milizia hauen barruan konpainiak osatzen ziren herriko jendearekin, buruzagi herriko alkatea zelarik. Ondorioz, armak aztartzeko, guda-gizonak

askatasuna galdu zuenean, 1876an, gure antolamendu militarra Espainiakoarekin parekatu zen, alardea egiteko arrazoiak desagertu. Hala ere, ekitaldi horrekin jarritu zuen hainbat herrik. Antzuolan, armen alardearekin batera,

dioenez, Antzuolako konpainia batek parte hartu zuen. Alardearen ezaugarriak azpimarragarrienak musika, bandera, kapitainaren diskurtsoa eta abesten diren Iparragirreraren bertsoak dira.



## elay INDUSTRIAL

Ebaketa zehatza / Doitasunezko trokelaketa

## TROKelay

Trokelgintza

## SEYTRA

Galda bainitikoa / Plastikodun gainestalketa

## elay-DEUTSCHLAND

Zerbitzu komertziala

## Balzars-Elay Balinif

Estaldura gogorretako zerbitzua

Tf. (943) 766100  
Faxa (943) 766262  
20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)



## Antzuolako dantzak zapatu arratsaldean

**Antzuolako jaietan euskal dantzek toki nabarmena izaten dute. Alde batetik, eguenean jaietako hasiera emateko, Udalbatzak aureskua dantzatzeko Herriko Plazan. Bestetik, Antzuolako Oinarin dantza taldeak bertako dantzak eskainiko dituzte.**

Eguenean, jaietako hasiera emateaz bat, herriko agintariek aureskua edo

gizon-dantza eskeini zuten jendearekin. Atzo inoiz baino udal zinegotzi gutxiago izan ziren eta badirudi egunotako eguraldi txarrak (edo *beldur eszeniko* famatua izango ote?) osasun arazoak ekarri dizkiela hainbat zinegotziri. Ea juergarako errekuperatzen diren... Bestalde, Oinarin dantza taldeak Antzuolako dantzak eskeini dituzte zapatuan 19:00etan

Herriko Plazan. Antzuolako dantzak lau dira (zinta dantza, makila txiki dantza, uztai dantza eta makila handi dantza) eta Gervasio Legorbururen arabera, badute ezberdintasunik Gipuzkoan diren antzeko dantzekin; "beste antzeko dantzetatik gehien bereizten dena makila txiki dantza da. Bertan dantzatzeko den 'pausoa edo boastitzea' ez dugu beste inongo

'makila txiki'an ikusten. Doinua bera ere nahiko ezberdina da". Uztai-dantzari dagokionez, uztaiekin elkar jotzerakoan inoiz ez dute aurrez aurre jotzen eta, oinak mugitzeko orduan, mugimendua guztiz ezberdina da. Legorbururen hitzetan, "dantzatzeko era nahiko berezia da".

### BI USO TXIKI

Makila handi dantzaren kasuan aldaketa gutxi da Gipuzkoan ezagutzen denarekin konparatuta; "gurea oso sinplea da, aldaketa gutxiakoa, azken konpasetan saltoka egiten bada ere". Eta bukatzeko, zinta

dantzan erabiltzen den zortzikoaren doinua ez da beste inon erabiltzen eta badu diferentzia nabarmen bat beste herrietan dantzatzeko denarekin. Legorburuk: azaltzen duenez, "zintak askatzearekin batera makilaren puntan, kaiolaren barruan dauden bi uso txiki askatzen dira eta hori gaur egun ez da beste inon egiten". 1845etik hona agertzen dira gaurko dantzak edo 'Trokeo dantzak': makila txiki eta makila handi dantzak. 1878an agertzen dira trokeo dantza eta zintak eta 1886an aurrekoak eta uztai dantza, gaur egun egiten diren lau dantzak beraz.




**SURPE**  
taberna

Erdiko plaza Antzuola  
Tf. 76 64 97

Ondo pasau jaiak!

**ONGI-ETORRI**



**JATETXEA & TABERNA**

Berezitasunak: haragi eta arraina txingarretan  
Bustinzuri, 6 Antzuola Tf. 76 63 49



**MATZ-ERREKA**

Zorionak jaietan!

Berotan estanpaturiko  
torlojugintza berezia

Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

Ate eta pertsianak zabaltzeko  
motorreduktoreen fabrikazioa

Ibarreta z/g 20577 Antzuola  
Tf. 76 60 00 Faxe 76 63 75

# Kontuola eta Irinmodo, Antzuolako komunikabideak

**Irailaren 12tik aurrera Berrigara Antzuolako etxe gehienetara helduko da astero. Bestalde, hamabostean behin, Antzuolako informazioa jasoko duen lau orriko gehigarria kaleratuko da Berrigararen.**

Gaur egun 250 Berrigara inguru banatzen dira Antzuolan, baina irailetik aurrera Antzuolako ia etxe guztietan banatuko da astero. Hasieran, euskaldunen bat bizi den Antzuolako 560 etxeetan banatuko da Berrigara, baina norbaitek Berrigara hartu nahi badu, Idolazera deituta jaso ahal izango du.

## BI HITZARMEN

Proiektua aurrera ateratzeko bi hitzarmen sinatuko dira: bata, Berrigara eta Idolazeren artean, bien ardurak zehazteko, eta, bestea, Idolazeren eta Antzuolako

Udalaren artean, azken honek urtean emango duen dirulaguntza eta lokala ziurtatzeko.

## KONTUOLA, ANTZUOLAKO GEHIGARRIA

Antzuolako informazioa jasoko duen lau orrialdeko gehigarriaren izena Kontuola izango da eta bertan herriko albisteak, kultur eta kirol arloko notiziak, elkarrizketak, iritzi artikulua, inkestak eta zaharren kontakizunak jasoko dira besteak beste. Horretarako, Berrigarak berriematea izango du Antzuolan. Marijo Deogracias kazetaria arituko da korrespontsal lanetan; bestalde, Idolazek erredakzio kontseilua osatuko du berriemateari laguntzeko.

## HERRIKO ESKOLETAN

Kontuolaren erredakzioa herriko eskoletako gela

batean kokatuko da, lehenengo pisuan, eta bertan lan egingo du Antzuolako berriemateak. Beraz, herritarrek oharren bat edo albiteren bat eman nahi badute badakite nora jo. Berriemateak hamabostean behin herrian gertatutakoak jaso eta Berrigarara ekarriko du inprentara eraman aurretik.

## IRINMODO, URTEKARIA

Kontuola Antzuolako hamabostekaria izango den moduan, Irinmodo urtero Antzuolako jaietan argitaratzen jarraituko da. Aurtengoa kaleratzen den 9. alea da eta datorren urterako, orain arteko ale guztiak eta hamargarrena bildu eta liburua egiteko asmoa dago. Aurtengo Irinmodo gaur, eguakitzan,

eguerdiko 12:30etan aurkeztekoaren Udaletxeko areto nagusian. 56 orrialde ditu eta 700 ale argitaratu dira Antzuolako etxe guztietan doan banatzeko. Aurtengo alean, besteak beste, Idolazeren kolaborazioa eta hainbat gairen gaineko artikulua jasotzen dira: Kalbaixoko eta Zubikoako gurutzak, Elkorro eta Berraondo pilotariak, udalbatza intsumisioa, Antzuolako Udalerriaren ingurugiro azterketa eta plangintza orokorra, baserrien etorkizuna...



# HIRU

## ARROZTEGIA

Antigua auzoa z/g 20577 ANTZUOLA Tfnoa: 76 63 59

ATEAK  
LEHIOAK  
ZORUAK  
HORMA ARMAIRUAK

**GOIZPER**  
Transmisioak

**MATABI**  
Ihinztagailuak

FABRIKAZIOA

**GOIZPER**

Antigua auzoa, 4  
20577 Antzuola (Gipuzkoa)  
211 Posta kutxatila 20570 Bergara

Tf. (943) 76 60 50  
Telexa 38856 GOIS-E  
Faxa (943) 76 60 08-78 70 95

**igok eta Txomin**

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.  
Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA  
☎ 76 60 39

BERGARA  
☎ 76 19 98

# Oporrak zela nahiago, zure kontura ala bidaia antolatu batean?



**Oskar Teran**

Hobeto norberaren kontura, askatasun handiagoa daukazulako nahi duzuna egiteko. Atzerrira joateko desberdina izango litzateke, igual hobeto antolatuta.



**Miren Asurabarrena**

Ni neure kontura ibiltzearen aldekoa naiz. Ingurura joateko, behintzat nahiago dut neuk antolatzea bidaia. Atzerrirako, berriz, antolatutako bidaia onena.



**Karmelo Moreno**

Nire kontura egindako bidaiak nahiago ditut, nahi duzuna egin eta ikusteko aukera daukazu horrela. Atzerrira ere nire kontura joango nintzateke.



**Pedro Blazquez**

Beti gertura irten izan gara andrea eta biok eta ez dugu sekula antolatutako bidaiarik egin. Gustatuko litzaidake horrelako bat egiteko aukera izatea...



**Sonia Franco**

Antolatutako bidaiak baino, nahiago dut nire kontura ibiltzea. Atzerrira joateko ere hobe da norberak lagunekin batera bidaia antolatzea.



**Lurdes Olaetxea**

Antolatutako bidaietan guztia programatuta dago eta hori ez zait gustatzen. Nahiago dut edozein lekutara joateko ere nire kontura ibiltzea.

**TABERNA  
ZAHARRA**

*Jatetxea*

bazkari eta  
afariak

Tfnoa: 76 21 21  
**ANGIOZAR**

**ARREGUI, E.M.**



**ARROZTEGIA**


- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**POL-POL**

Taberna

☎ 76 07 78






## Bi bala: bi errudun

Zuek bezala, ni ere minduta nago. Nik ere ezin dut nire haserrea barnean gorde. Nik ere nahiago nukeen uztaillaren hama-hiruko arratsaldeko bostek beste berriren bat ekarri izan balute. Azken finean, lau garaipen suposatuko lituzkeelako horrek: bate-tik, Ermuko mutil gazteak gure artean jarrituko luke; bestetik, euskal presoek, legez dagokien bezala, ezarritako zigorra beraien herrian bete ahal izango lukete. Hirugarrenik, Gobernu eta ETAre arteko akordio/elkarrizketa bat emango litzateke; eta, azkenik, herritarron artean ez litzateke hainbeste zentzugabeko gorroto egongo. Baina ez da horrelakorik gertatu. ETAk 48 orduko epea eman zuen. Preso guztiak ez etxeratu arren ere, ziur asko ETAk nahikoa luke Gobernuaren akordio keinu bat, epea luzatu edo beste irtenbideren bat aurkitzeko. Gobernuak egin du keinua, baina hobe apuntatzekoarena. Miguel Angel Blancok bi bala zituen: ETAre bata, Gobernuarena bestea.

Baina gizarteak ez du hori ikusi. Gizarteak, komunikabideek erakutsi dutena ikusi du. Komunikabideek, Gobernuak nahi zena isladatu dute. Mayor Orejak, hurrengo elekdizioetan euskal presoak Euskal Herrira ekarri botu gehiago lortuko balitu, horixe egingo luke. Berea besterik ez zaio inporta: bost axola dio presoen egoerak, baita Miguel Angelen biziak ere. Baina gizarteak ez du ikusi. Gizarteak, Miguel Angelen hiltzaileetako bat txalotu du.

Zer gertatuko litzateke Mayor Oreja bera, edo kargu alturen bateko bere kideren bat egongo balitz ermutar mutil horren lekuan? Berdin jokatuko lukete? ETAk emandako 48 orduak deklarazioak egiten pasako al lituzkete? Orduan ere ez litzateke burutik pasa ere egingo euskal presoak Euskal Herriratzeko aukera? Orduan ere, botuak irabaztearekin soilik pentsatuko lukete? Ni ere haserre nago: baina Gobernuarekin. Ni ere minduta nago: egia osoa erakusten ez diotelako, begiak ireki nahi ez dituen gizarte honekin.

**Ainhoa AGIRREAZALDEGI**



## Hitzak

Zaila, benetan zaila guk gizakiok asmatu ditugun komunikazio bide guztiakin sentitzen duguna azaltzea.

Zaila, gatza, ezinezkoa...

Betiko arazoa... ulergaitza, ulerkorra, ulertezina???... ezin dugu elkar ulertu.

Zas!

Oraintxe ulertzen dizut, ez dakizu zer esan nahi dudana...

Hor dago *gakoa*?

Hizkuntza, gure hizkuntza, *gurea, gurea, guria*. Baina... ze demontre, ze arraio, alaputrio!!

...momentu benetan garrantzitsua bere bizitzan; bere urduria somatzen zen gelako izkina galdu haietan... esan beharra zekana, bere hizkuntzan, bere baliabide guztiakin...

- Zera..., ez dakit... ezagutzen ditudan hitz guztiak azaldu ahal izango duten esan nahi dudana...

Benetan zaila, ezta? Lasai, ez dago hitzen beharrik, esan zidan.

Horixe bera gustatuko litzaziguke, baina ele maitagarri eta gorrotagarri guzti horien beharra, nahia somatzen dugu... Zergatik?

*Zaila, benetan zaila.*

**Joan Ander BENGOA**

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15

# Praken hamabostaldia

**Prakak 2.900 PTatik aurrera**

**Kamisetak 990 PTatik aurrera**

**CRISTINA**

Zatoz! Hementxe gaituzu: Harruriaga z/g - Bergara, edo deitu telefono honetara: 76 03 04


■ **Kotxeak bedeinkatzen**

Aurreko asteko eguenean eta domekan ere jende ugari hurbildu zen **San Kristobal** auzora euren **ibilgailuak bedeinkatzeko**



asmoz. Ohizkoa denez, San Kristobaleko jaiek jende dexente erakarri zuten eta zapatu gauean **ETB-1eko "Jaiak 97" saioko lankideak** ere bertan izan ziren, jai giroan murgildurik eta San Kristobal jaiei buruzko erreportaiatxoa eginez.

Domekan, berriz, meza nagusiaren ondoren, ibilgailuen ohizko bedeinkapena egin zen eta jarraian **Elorza trikitilari anaiek** saioa eskeini zuten.



■ **Itsas ibilaldia**

35 lagunek hartu zuten parte **Beti Busti piraguismo taldeak** domekan **Saturrarantetik Debara** antolatutako itsas ibilaldian. Ibilaldi honen laugarren edizioan

Donostia edota Santanderreko piraguistak ere izan ziren eta guztiek lortu zuten trabesiako **5,5 kilometroak** betetzea 40-100 minutu bitarteko denborarekin. Probaren amaieran luntxa eman zitzaien partaideei eta Debako hondartzan piraguen erakustaldi bat egin zen. Antolatzailak oso pozik azaldu dira proba honek aurrean izan duen erantzunarekin. Datorren urterarte, beraz... Eta udan jarraitu gogor entrenatzen!

**Gallastegi**  
*Jostundegia*  
 Mahaizko lanerako jantziak  
 San Pedro ☎ 76 10 85

**KONDE**  
  
 Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

*Paper pintatuak - Pinturak*  
**A. ZANGITU**  
 ORDUTEGI BERRIA:  
 8.00-13.00 ETA 15.00-20.00  
 ☎ 76 19 54 BERGARA  
 IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

■ **Trikiti eskolako enafaria**

**Jardun elkarteko trikiti eskolako ikasleek enafaria** egin zuten joan zen eguakitzean San Migel-pe elkartean. Aurtengo ikasturtean, urritik ekainera bitartean, adin ezberdinetako **57 ikasle** aritu dira kartzela zaharrean **Maidar Osa eta Iosu Zeziaga** irakasleen esanetara, 35 soinua ikasten eta beste 22ak panderoarekin.


Ostiraleko enafarian  
28 lagun bildu  
ziren eta, nola ez,  
afalostean  
ikasleek  
ikasitakoa  
praktikara eraman  
nahi izan zuten.  
Hura martxa,  
hura!!



■ **Udalekueetako haurrak Berrigarán**

**Xipizaro ludotekak antolatutako udalekueetako gaztetxoek** primeran pasatzen dituzte uztaileko egun lainotsuak. Aste osoan zehar Kultur Etxe inguruan jolasean izan ditugu eta joan zen ostiralean eta herenegun **Berrigarako erredakzioan** bisitari izan genituen.

Gaztetxoek, kazetari grina erakutsiz, era guztietako galderak egin zizkiguten eta aurrerantzean Berrigararekin kolaboratzeko prest azaldu ziren. Argazkian Iñaki Iturbe Berrigarako maketatzaila gaztetxoei astekariko prozesuaren gaineko azalpenak ematen. Orain, euren notizien zain geldituko gara...



**Zertan dihardute ba?**



**Manu Muniategian-dikoetxea** bergarar margolariak Futbol Profesionaleko Ligaren Fundazioak deitutako margo lehiaketako lehen saria eskuratu du. Manuk *"Triptico rojo"* izenburuko lana aurkeztu zuen eta 2 milioi pezeta jasoko ditu sari modura. Lehiaketa honen laugarren ediziora Estatu osoko 200 artista aurkeztu ziren. Epaimahaiari Antonio Baro, Futbol Profesionaleko Ligako presidentea, Luis Gordillo margolaria, Jose Guirao, Reina Sofia museoko zuzendaria, eta Fernando Huici eta Fernando Castro Flores arte kritikoa izan ziren.

**REMENTERIA**

**Altzariak**

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

**ZUBIETA**

**elektragarintza**

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTJETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik




Erakusketak: Mastorrekak 14, behea BERGARA  
Tfnoa: 76 55 02 Faxes: 77 11 30

# Nuria Gomez

**Nuria Gomez Inza angiozartarra Ainhoa Agirre elorriotarrarekin batera Udaleko turismo bulegoan ari da lanean. Nuriak Turismo ikasketak burutu zituen Santanderren eta orain, bisitarietara, Bergara erakusteko ardura izango du.**

- Zenbat hizkuntza dakizkizu?
- Euskara, gaztelera, ingelesa eta frantsesa.
- Nongo bisitariak etorri dira orain arte?
- Katalanak eta arjentinarrak batez ere.
- Zer gustatzen zaie gehien?
- Pleno aretoa eta Arreseko balkoia.
- Bergara ezagutzen dute lehendik?
- Ez, asko kasualidadez heltzen dira.
- Bergararrok ondo ezagutzen dugu gure herria?
- Ez dut uste.
- Puntuatu Bergara ikuspegi turistikotik.
- Otiak 10era 7.
- Herriko leku bat?
- Angiozarko eliza.
- Nora egingo zenuke bidaia?
- Italiara.
- Bakarrik ala lagunduta?



*“Orain arte, katalanek eta argentinarrak bisitatu dute Bergara. Uste dut bergararrek ez dutela ondo ezagutzen herria. Bidaiatzeko sasoirik onena udazkena da”*

- Lagunekin nahiago.
- Turismo bulegoetara jotzeko ohiturarik?
- Bai, askotan informazioa eskatzen diet joan baino lehen.
- Bidaiatzeko sasoirik onena?
- Udazkena.
- Antolatutako bidaiak ala zure kontura nahiago?
- Nire kontura.
- Oporrak, atsedenerako ala lekuak ikusteko?
- Lekuak ikusteko.
- Barrualdea ala kostaldea?
- Kostaldea.
- Hiri haundiak ala herri txikiak?
- Herri txikiak.
- Plaia bat?
- Grosekoa, Donostian.
- Bainujantzia ala bikiniak?
- Bikinia.
- Top-lessik egiten duzu?
- Ez, ez didate lagatzen.
- Dietarik jarraitzen duzu?
- Batzuetan bai, baina aspertu naiz.
- Janari bat?
- Barazki menestra.
- Eta edari bat?
- Ardo beltza. Ona e!
- Udan jairik jai ibiltzen zara?
- Normalean bai, baina aurten ezin dut.
- Jairik onenak?
- Mutrikuko Madalenak.
- San Ferminetan egon zara?
- Ez dut aukerarik izan...
- Nork irabaziko du Tourra?
- Olanok, zer esango dut ba?

## EDEL TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta, 14 BERGARA**

## FUTBOLIN TXAPELKETA Oilagorra tabernan

### EGUNA:

uztailaren 20an, arratsaldeko 4:30etan.

### INSKRIPZIOA:

500 PTA bikoteko.

### SARIAK:

25.000, 10.000, 5.000 PTA.



Joko automatikoak  
Tf. 76 02 43

## Bolintx

O K I N D E G I A

domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 beheha Telefonoa 76.01.26

**KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07**

*Tomas Gezalaga*

**ANTZUOLA BERGARA**

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •



**ETXEBIZITZA**

**Estudioa** alokairuan Benidormen. ☎ 76 23 43.

**Aleman batek** logela bat alokatuko luke irailera arte. ☎ 76 91 31 (Mertxe)..

**Pisua** eta garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 51 45.

**Pisua** salgai Masterrekan. ☎ 76 08 67.

**Pisua** alokairuan Laredon. ☎ 76 13 86 (gauzez).

**Garajea** salgai Masterrekan. ☎ 76 24 57.

**Pisua** salgai Frontoian. 160 m2. ☎ 76 24 42.

**Pisua** salgai Masterrekan. Berriztua. ☎ 76 08 67.

**Garajea** saldu edo alokatzen da Santa Marinaran. ☎ 76 47 27.

**Pisu txiki** bat, apartamentua edo ganbara alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 04 57.

**Garajea** alokairuan Matriategin. ☎ 76 16 38.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke Bergaran. ☎ 76 06 16.

**Etxea** salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 23 84.

**Apartamentua** salgai Laredon. ☎ 76 44 34.

**Garaje** bikoitza alokairuan Ibargarain. ☎ 76 57 69.

**Pisua** salgai Barrenkalen. ☎ 76 50 97 (gauzez).

**DENETARIK**

**Vitus** bizikleta salgai. ☎ 76 08 21 (20:30-22:00).

**Ford Orion** kotxea (1.6 D) salgai. ☎ 76 71 12.

**Marzocchi** bizikletarako suspentsio hidraulikoa salgai. Ia berria. ☎ 76 61 06.

**Seiko** esfera zuridun erloju galdu dut. Errektangularra. ☎ 76 47 40.

**Renault 5 GT** Turbo kotxea salgai. ☎ 76 57 87.

**Yamaha Virago** 1100 motorra salgai. 4.000 kilometro. ☎ 76 57 69.

**Kawasaki GPZ** motorra (400 cc.) salgai. Kilometro gutxiarekin. ☎ 76 08 97.

**Katukumak** salgai. ☎ 76 70 90.

**Kotxeko** irrati ekipoa salgai. ☎ 76 04 40 (gauzez).

**Litera** bat (90 neurrikoa) salgai.. ☎ 76 15 06.

**Yamaha** Diversion motorra salgai. ☎ 76 36 03 (iloseba)..

**Opel Corsa** TR 1200 kotxea salgai. ☎ 79 79 92.

**Renault 21** kotxea (SS-AF) salgai. ☎ 76 29 98.

**LANA**

**Ingeles** klaseak uztailean (goizez). ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Neska** bat behar da etxeko lanak egin eta heldu bat zaintzeko. ☎ 76 61 85.

**Mate**, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 20 04.

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 23 67/76 22 90.

**UBI**ko marrazki teknikoko maisua behar da. ☎ 765167.

**Haurrak** zaindu eta etxeko lanak egiteko neska euskalduna behar da. ☎ 76 09 24.

**Klase partikularrak** udan. ☎ 76 30 35 (Unai).

**Etxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 13 46.

**OHO** eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 04 34.

**Jatetxe** batean lan egingo nuke. ☎ 929 27 80 37.

**Haurrak** zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 907 92 35 63.

**Matematika**, fisika eta kimika klaseak uztailean eta abuztuan. ☎ 76 70 40.

**Hiru lagunek** lan egingo lukete udan zehar kargadeskargako lanetan. ☎ 76 45 04 (Egoitz).

**Jatetxe** edo gozotegi batean lan egingo nuke udan. ☎ 76 19 64 (Isidro Jabier).

**Neska** behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako (irailetik). ☎ 76 54 73.

**Euskara** ikasteko, 28 urteko gasteiztar batek, berrri batean lan egingo luke udan. ☎ (945) 27 53 14.

**EGUREN****GESTORIA**

Maria Pilar Eguren Díez  
Kolegiatutako administrazio gestorea  
Simon Arrieta Plaza, 3 behea  
☎ 76 21 65 / 76 24 45

**GURIDI** altzariak**Era guztietako altzariak**

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

**LAGUN ARO**

ASEGURUAK

**AGENTEA-DELEGATUA****Ramon Iraegi Eguren**

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00



ARGAZKIAK: KINU

*"Abesti gehienetan galaxietako istorioak kontatzen ditugu, horregatik Saturno"*

*"Maketa oso era sinplean grabatuta dago eta kanta poperoenak sartu ditugu"*

**ALEX MUELA, SATURNO TALDEKOA**

## **"Musikaren bitartez gure sentimenduak azaleratu nahi ditugu"**

Itziar Iturbe (teklatura), Iñigo Aranzabal (bateria), Mikel Azkargorta (bajua) eta Alex Muelak (kitarra eta ahotsa) osatzen dute Saturno taldea. Orain dela bizpahiru hilabete sortu zuten taldea eta maketa bat grabatu zuten Valen Kalboetxeaga eta Bitxor Uralderen laguntzarekin. Maketa entzun ondoren, taldeari buruz sortu zaigun jakinmina asetu nahian, Alex Muelarekin berba egin dugu.

**- Nolatan grabatu zenuten maketa?**

- Dena oso azkar pasatu da. Abesti guztietako musika eta letrak neuk egin ditut, hau da, zelaibat esateko abestiak eginak zeuden taldekide guztiak elkartu ginenerako. Hiru bider entsaiatu eta maketa grabatzeko aukera sortu zitzaigun. Valenek eta Bitxorrek asko lagundu digute instrumentuak, tresneria eta entsaiu lokala erabiltzen laga baitigute. Maketa egun batean grabatu genuen. Asmoa zinta grabatu eta hortik zehar bidaltzea zen, ezagutzera emateko modu bat izan da.



Galaxie 500, Yo la tengo edo Surfin Bichos dituzte gustoko.

**- Baina oraindik ez duzue zuzenkorik eskaini.**

- Ez, gainera Itziar kanpoan dago eta Iñigo Aranzabalek taldean jarraituko duen ez dakigu; gustatuko litzaiguke jarraitzea oso ondo moldatzen baikara berarekin. Horrez gain, beste kitarra bat sartu nahi genuke, taldeari indar piskat emateko. Uda ostean zuzenean jotzen hastea gustatuko litzaiguke. Maketa oso era sinplean grabatuta dago eta abesti poperoe-

nak grabatu ditugu, baina zuzenean indar gehiago erakutsiko dugu. Halere, Iñigok zer egingo duen zain gaude abestiak hobeto entsaiatu eta soinua garatzeko.

**- Zer eskaini diezaioke Saturno taldeak herriko musika eszenari?**

- Musikaren bitartez gure sentimenduak adierazi nahi ditugu, esperimentatu, eta musikaz gain, olerkiak, antzerkia edota beste espresio modu batzuk erabili.

**- Musika eta letrak zeuk egin dituzu.**

- Bai, ahotsa beste instrumentu bat da guretzat eta ingelesa, gaztelera edota euskara erabiltzen ditugu, segun eta musika nolakoa den. Ingelesa erabiltzearena ez da moda kontua, musika-soinuari, dagokion ahots-soinua sartzen diogu. Gehienak ingelesez atera zaizkit, abestiak horrela sentitzen ditudalako.

**- Zergatik Saturno?**

- Abesti gehienetan galaxietako istorioak kontatzen ditugu, horregatik Saturnoren kontua. Bestalde, Arantxa Urretabizkaiaren liburua asko gustatzen zaigu...

**- Talde berria izanik, influentziak aipatu behar. Zer iturritatik edaten duzue?**

- Talde askoren eragina daukagu, musika ugari entzuten dugulako. Baina Galaxie 500, Yo la tengo, Flamin Groves edota REM aipatuko nituzke nazioartekoan, eta Surfin Bichos eta El regalo de Silvia estatukoan. Klasikoetatik, berriz, Bowie, Dylan eta Velvet. Gure musika oso ekleptikoa dela uste dut.

## TXINPARTAK

### Txirrindulari saria

Lokatza txirrindulari taldeak antolatuta zapatuan arratsaldeko 4etan jubenilendako Santa Marina lasterketa jokatu da. Irteera Matxiategitik egingo da eta 113 kilometroko ibilbide laua egin beharko dute txirrindulariek.

### Garaipena eta errekorra

Aitor Zabaleta kotxe pilotuak estatuko kotxeen mendi igoeren txapelketako proba irabazi zuen joan zen igandean Galizako La Chantadan. Zabaletak proba irabazteaz gain, errekorra ere egin zuen. Txapelketa bukatzeko 4 proba geratzen direnean lehenengo postuan dago. Jokatu diren 4 lasterketatik 3 irabazi eta bat ezin izan du bukatu arazo mekanikoengatik.



## Juantxo Villarreal Bergaran

Juantxo Villarreal Elgorriaga Bidasoako entrenatzailea izandakoa eta talde bereko Gurutz Aginalde eta David Rodriguez jokalariek Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuek antolatutako Udako Kirol Eskolaren barruan postu espezifikoei buruzko saio bat zuzendu zuten joan zen asteazkenean Labegaraieta kiroldegian. Guztira 22 lagun izan ziren Bidasoako jokalarien eta Villarrealen azalpenak jarraitzeko. Argazkian Juantxo Villarreal ikus dezakezue David Rodriguez zentralarekin.

## Gimnasia erritmikakoak bikain Bartzelonan

Amaia Ortiz de Urbina, Nerea Mendizabal eta Ane Miren Fernandez Ariznoa gimnasia erritmikoko kirolariek maila ezin hobea erakutsi zuten duela 15 egun Bartzelonan jokatutako Estatuko txapelketan. Alicia de Cesar eta Elena Herrerosen entrenatutako kirolariak estatu osotik joandako 50 kirolariren artean 20 lehenengoan artean sailkatzea lortu zuten. Orain ondo merezitako atsedena hartuko dute eta irailean, urrian jokatuko den Euskadiko txapelketa prestatzen hasiko dira.



## Nesken futbitoko finalak

Lagunak elkarteak antolatzen duen nesken futbito txapelketaren final erdiak bihar, zapatua, 16:30etan jokatuko dira Labegaraieta kiroldegian. Lehenengo final erdian Potzu Ta Zapaburuak eta LTBk neurtuko dituzte indarrak. Ondoren, 19:30etan, Power Rantxeras eta Gu Geu taldeek jokatuko dute. Txapelketaren finala eta 3. eta 4. posturako partidua hurrengo eguakitzean jokatuko dira 16:30etan. Partidua jokatu ostean, sari banaketa egingo da. Lagunak elkarteko kideak pozik daude txapelketak izandako arrakastarekin eta datorren urterako jokalariek antolaketa kontuetan gehiago parte hartzea eskatu dute.





# Arloteak Oilagorra Txapeldun

## Penaltietan Bildurbarek Opel/Lam taldeari irabazi ondoren

**Arloteak** Oilagorrak irabazi zuen Ipintzako futbol txapelketa, joan zen eguakitzean penaltietan Bildurbarek taldea menperatu ondoren. Partida bana bukatu zen eta penaltiek erabaki zuten txapelduna. Finalaren ondoren, sari banaketa egin

zen. Txapedunaren trofeo Udal Kirol Zerbitzua- ren izenean Jabier Zabaleta kirol zinetziak eman zion Mikel Albisua Arloteak Oilagorra taldeko kapitainari. Txapeldun ordearena, berriz, BKEko Felix Aranburuk Bildurbarek Opel/Lam taldeko

Iñaki Arrietari. Matxiategi tabernak emandako jokalarari beteranoenaren saria, Matxakategi taldeko Abel Maestrerentzat izan zen. Agorrosin igerilekuko tabernako Josean Olabariak, bestalde, Arloteak Oilagorra taldeko Mikel Elkorobarrutiari eman zion atezain

onenaren saria eta Berrigarak emandako golegile onenarena, Xurrupak taldeko Gorka Davilarentzat izan zen.

Bukatzeko, txapelketako antolaketa batzordeak urte hauetan egindako lana eskertzeko emandako sari berezia Pedro Jausorok jaso zuen.



# 25 urteko ibilbidea

## Adin mugarik gabeko txapelketa

**Adin** mugarik gabeko futbol txapelketak 25 urte bete ditu eta beheko argazkietan urte hauetan irabazle izan diren taldeen argazkiak ikus ditzakezue. Argazkietan azkenengo urteetan Bergarako izan dituen futbolari onenariakoak agertzen dira. Argazkiekin urte hauetan

Ipintzako txapelketa eta Bergarako futbola bultzatzen aritu izan direnei omenalditxo bat egin nahi izan diegu.

Aldameneko argazkian, esate baterako, 70ko hamarkadako talde mitiko bat duzue, Acero; 1972ko txapeldun ordea hain zuzen ere. Honako



**ACERO. 1972KO TXAPELDUN ORDEA**

hauek dira jokalarien izenak ezkerretik eskumara. Goian: Iturbe, Olabide, Idigoras, Laspiur, Narvaez eta Urzelai.

Behean: Jose Luis Agirre, Uritxa, Mateo eta Alarcia "Txutxi". Labegarieta ingurukoak ziren eta "A" taldekoak ziren.



**1972: BETI ONA.** Lehenengo txapeldunak dira eta Matxiategi auzokoak dira. Finalean 2 eta 1 irabazi zieten Acerokoei. Goian: Elias, Txutxi, Arruti, Luisja Olabarria eta Amosarrain. Behean: Morillas, Josean Olabarria, Agiriano eta Patxi Madariaga.



**1974: MADURA.** Penaltietan irabazi zuten Beti Onaren aurka. Goian: Etxeberria, Andoni Aranzabal, Josean Aranzabal, Paulino Arriola, Iñaki Alberdi eta Iñaki Jauregi. Behean: Kalboetxeaga, Agirre, Fernando Oregi, Juanjo Gallastegi (haurra) eta J. C. Prat.



**1977: ACERO.** Goian: Iturbe, Pombar, Mariano, Fernando Amosarrain, Enrike Olabide, Pedro Belastegi "Peito". Behean: J. R. Arietaleaniz "Uritxa", Ilarduia "Sarti", J. M. Arruabarrena "Nino", F. Idigoras, "Piti" Unamuno eta J. Laspiur. Argazkian ikurriñarekin ikus ditzakezue, sasoi horretan legalizatu baitzen ikurriña.



**1978: IKUSTEGI.** Goian: Abajo, Otaño, Jon Ander Arriola, Galan, Igarza eta Kikio. Behean: Biana, Unamuno, Kruxito, Lazkano eta San Vicente. Ikustegi taldea Felix Aranburu Agorrosin igerilekuko orduko arduradunak ateratzen zuen eta behin baino gehiagotan irabazi zuten txapelketa.

## San Lorentzon

**S**an Lorentzon ateratako bi argazki ekarri ditugu oraingoan Erretratu Zaharrera. Biak orain dela 40 bat urte ateratakoak dira: goikoan 18 bat urteko neskatxak agertzen dira aurrean bi neska-mutiko dituztela; behekoan, ostera, neska-mutiko kuadrila.

**Goiko argazkia** San Lorentzo egunean, auzoko jaietan abuztuaren 10ean, aterata dago. Ibaiondo kaletik aterata, atzean San Lorentzoko fabrikak ikusten direla.

Bertan agertzen direnen izenak honako hauek dira, ezkerretik hasita: Ana Mari Gallastegi, Kontxi Gonzalez, Mari Karmen Gallastegi, Maria Josefa Madariaga, Maria Pilar Madariaga, Angelita Mur eta Juli Rodriguez. Aurrealdean dauden umeak Arantxa Ugalde eta Xabier Alberdi dira.

**Beheko argazkia** ere orain dela 40 bat urtekoa da eta San Lorentzoko etxean aurrean aterata dago. Bertan agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Atzealdean: Maria Pilar Agirre, Ana Mari Iñarra, Arantza Agirre eta Agustina Rodriguez.

Aurrean: Rosa Mari Iñurrategi, Arantza Sebal, Maria Jose Sebal eta Migel Angel Saizar.

Aurre-aurrean: Estibaliz Saizar.



Argazkia: Juli Rodriguez



Argazkia: Agustina Rodriguez

Industria  
hornikuntzak



Industriaren  
alde

### MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89  
Santa Cruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



**zumelaga**  
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Abuztuaren 9ra arte zabalik



## ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65


## SUBIJATI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

# Automobil aseguruak

Mapfre abantailak



Zure kotxeko  
aseguruaren  
abantaileri buruzko  
zehaztapen guztiak  
emango dizkizugu.  
**Zatoz eta  
galdetu!!**

 **MAPFRE  
MUTUALIDAD**

Simon Arrieta 3, Bergara  
☎ 76 28 79 / 76 18 80



## BICIPRECISIÓN IGARTUA

Espainia eta Portugalerako inportatzaile eta banatzaile eksklusiboa

fietsen **FLANDERS** cycles

**F.moser**

**500m<sup>2</sup>, biltegi eta denda berria.**

•  
Bizikletak:

errepiderakoak, MTBak,  
haurrentzakoak, estatikoak, trialerakoak,  
tandemak eta ziklo-krosserakoak.

•  
**Konponketak.**

•  
Bizikleta garbiketa eta  
engrase zerbitzua.

•  
**Erropa, oinetako eta zapatilak  
era guztietakoak.**



Zubieta, 5-7, posta kutxa 9, 20570 Bergara.

Tf. 76 11 21, faxa 76 06 75, mobila 989 76 11 21

# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Bainugelak, zeramika eta sukaldeak.

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga, 10 behea.

Telefonoa: 76 03 30. Faxa: 76 02 91



**FAGOR**

Sukaldeko altzariak

